



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jose M. Alzuri Vertiz
Javier Bereau Miquelaena

2017ko irailaren 13an, 12:00ak direnean, Ohizkanpoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel J. Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. HERRIKO OSTATUA.

C.E.k adierazu du *Herriko Ostatuko* errentamendua uzteko asmoa. Ondorioz, lehiaketa berria egiteko baldintzen agiria aztertu da eta aho batez erabakitzen da:

1. Lehiaketa irekirako deia egitea Iturengo *Herriko Ostatuko* taberna eta jatetxe zerbitzua eta, horrekin batean, Kontseilu karrikako 38an dagoen etxebizitzaren errentamendua emateko.

2. Baldintza plegua onestea. Hasierako prezioa, hilabeteko 300 eurotan finkatu da eta errentamenduaren iraupena, 5 urtetan.

Eta bertzerik ezean, 12:30 direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.